

Sarrera

Albert Einsteinek idatzi zuen jakinduria ez dela eskolatzearen emaitza, baizik eta bizitzan zehar hura eskuratzeko ahalegina (Dukas & Hoffmann, 2013, 44. or.). Haren aurretik, Seneka Gazteak esan zuen (K.a. 4 - K.o. 65) bizi bitartean bizitzen ikasteko (McGowan, 1931, 27. or.). Gizakiak berezkoa du jakin-mina, bai eta ikastea ere. Gaur egun, gizarteak zahartzen ari dira eta bizitza aktiboa luzatzen ari da. Alde batetik, gizarte gero eta zaharrago horiek hainbat erronka dituzte, hala nola bazterketa soziala edo adinekoekiko estereotipo negatiboa: askotan ez-herritartzat hartzen dira (etorkinak, errefuxiatuak, asilo-eskatzaileak) eta ugaritzen ari dira mundu osoan. Beste alde batetik, adinekoek ahalik eta luzaroen egon nahi dute aktibo, buruz eta gorputzez, denboraren joana saihetsezina izan arren. Beren gogoetarako gaitasunari, kontzientzia pertsonalari eta aurrerapen medikoei esker, bai eta gizarte-egituren aldaketei esker, erretiraturik egon arren, zenbait adinekok bizitzaz beterik jarraitzen dute beren hazkuntza indibidualean. Zoritxarrez, horietako batzuek, batez ere klase ekonomiko baxukoek edo prestakuntza gutxiko etorkinek eta herrialde txiroetako errefuxiatuek, aipatutako erronka horiei egin behar diete aurre. Esan gabe doa, askotan ez dute uste hizkuntza berri bat ikasteko gai direnik, adibidez. Gainera, adin handia ez da onuragarria eta baikorra adineko guztientzat. Aurrerapen medikoak eta kontzientzia soziala gorabehera, adinekoek “muga” sozial, fisiologiko eta psikologiko ugari dituzte, hala nola eutanasia ekonomikoa, bakardadea, oroimen-gabeziak eta gaixotasun mentalak.

Horren aurrean, bizitza osoan zehar ikastea funtsezko erronka da, eta aukera gisa ez baina premia gisa hartu behar da, adinekoen bizi-baldintzak hobetzeko eta haiek baztertzen ez dituzten gizarteetan leku egokia emateko. Gutako gehienontzat bizitza ez da ikasteko garaia eta lan egiteko garaian banatzen, eta bizitza osoan zehar aztertu behar da ikaskuntza. Fischer-en ustez (1999), bizitza osoan zehar ikasteko aukera eduki behar dute, batez ere, gizarte-maila baxuko pertsonen, etorkinek eta errefuxiatuek, bai eta adinean aurrera doazenen ere, etxean, eskolan, lanean nahiz komunitate politikoan.

Bizitza osoan zehar ikasteak posible egiten du eskolako, komunitateko, etxeko eta laneko ikaskuntzaren ezaugarri onenak hobeto integratzea. Adinekoentzako heziketa soil gisa hartu beharrean, bizitza osoan zehar ikastea hezkuntzaren filosofia edo pentsamolde berezizat hartu behar da. Bizitza osoan zehar ikasteak giza biografien garrantzia luzatzen du 55 urteetatik haratago. Aldi berean, ikerketek, batez ere esparru ez-formaletan eginek, adineko ikasleak gai ez direla aurresuposatu dute. Beraz, nahiz eta gero eta interes handiagoa egon adinekoen hezkuntzan, oraindik mugatua da adineko ikasleei buruzko ikerketa, eta arreta handiagoa eskatzen du. Muga horiek gertatzen dira, agian, helduak, eta baita ikasle gazteak eta nerabeak ere, identifikatu beharreko hiru adin-talde nagusietako bat direlako, talde bakoitza gehiago espezifikatu gabe. Horregatik, konponbideak behar dira, adineko ikasleen hezkuntza arrakastaz sustatzeko eta adin-talde horri (55 urtetik gorakoak) egokitutako irakaskuntza-metodologiak sortzeko. Hori gertatzeko, asko aldatu behar da irakasleak lanean hasi aurreko prestakuntza. Etorkizuneko irakasleek behar adina ezagutza eta trebetasun izan behar dute adinekoekin lan egiteko eta hezkuntza-ingurune egokiak sortzeko (4. atala).

Liburu honen helburua adinekoek atzerriko hizkuntzak ikasteaz dauden aurreiritzi eta estereotipo negatibo batzuk ezabatzea da, adinekoek atzerriko hizkuntzak ikastearekin lotutako gaiak sakon eta modu eguneratuan jorratuz. Liburuaren edukia ulergarriagoa izan dadin, *atzerriko hizkuntza* deitu diogu ikasgelan irakatsi eta ikasitako hizkuntzari, ez du loturarik ikaslearen eguneroko bizitzarekin eta arrazoi profesional edo akademikoengatik ikasi ohi da. Aldiz, *bigarren hizkuntza* deitu diogu ikasleek beren berezko hizkuntza gisa erabiltzen ez duten hizkuntzari. Halaber, hitzun gehienak ez-natibotzat jotzen diren eskualde batean erabiltzen den hizkuntza gisa ere definitzen da. Gainera, herrialde jakin bateko hizkuntza ofiziala izan ohi da, eta kultura desberdinetako kideen artean komunikatzeko erabil daiteke. Horregatik, nahiz eta liburuak ez dituen esplizituki bereizten atzerriko eta bigarren hizkuntzetako ikasleak, eta hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten adineko guztiei buruzkoa den, 4. kapituluko azterlanak atzerriko hizkuntzetako ikasle adinekoengan jartzen du arreta. Halaber, adinekoek hizkuntzak ikasteari buruzko ikerketa gehienak atzerriko hizkuntzetan oinarritzen diren arren, migrazio masiboko garai honetan, adin guztietako etorkinek eta errefuxiatuek beren herrialde berrietako hizkuntzak ikasi behar dituzte, edo haiek gabe aurrera egiten saiatu, eta inoiz baino beharrezkoagoa da bigarren hizkuntzen ikaskuntza zientifikoki ikertzea. Bigarren hizkuntza ikasteko prozesuaren berezitasunari buruzko datu gehiagok eragin positiboa izan dezakete ez-herritarrak gizarteratzean.

Liburuak, halaber, irakasleak lanean hasi aurreko prestakuntzari buruzko gomendio eraikitzaile batzuk planteatzen ditu, adinekoen behar eta itxaropenetara hobeto egokitzeko. Azkenik, liburuak eztabaida hasi eta ideia-truke bat bultzatu

nahi du, atzerriko hizkuntzaren geragogan beharrezko aldaketa eraikitzaileak sartzeko. 1. kapituluak (“Zahartzaroaren diziplinarteko ikuspegia”) hainbat ikuspuntutatik aztertzen du zahartze-prozesua. Zahartzea fenomeno biologiko, filosofiko eta soziologiko gisa deskribatzen da, bai eta kultural gisa ere. Kapitulu honek zabaldu egiten du “zahartzearen” kontzeptua, adineko helduen osasuna eta eguneroko bizitzan funtzionatzeko gaitasuna aintzat hartu ohi dituen. Horren ordez, gerontologian jartzen du arreta; hau da, zahartzeari buruzko ikerketa zientifikoa, adinari aurre egiteko alderdi biologikoak aztertzen dituen (hala nola ondare genetikoa eta osasun fisikoa), adinari aurre egiteko alderdi psikologikoak (hala nola ezagutza-maila eta osasun mentala), eta ingurune aldakor batean bizitzearen alderdi soziologikoak (kultura eta politikarekiko harreman pertsonalak eta azpiegiturak). Kapituluak azpimarratzen duenez, aldagarritasun hori identifikatu daiteke giza populazio orotan, eta lotura izan dezake baldintza genetikoekin, bizitzaren hasierako inpresioekin eta pertsona baten bizitzan berandura arte ohartu gabeko beste faktore batzuekin.

2. kapituluak bizitza osoan zehar ikastearen kontzeptua aztertzen du, bi ikuspegitatik. Lehenbizikoa, sehaskatik hilobira ikasteko zentzuzko printzipio gisa. Beste ikuspegian, bizitza osoan zehar ikastea politika, programa eta proiektuen bidez gauzatu beharreko printzipio pedagogikoa da (hau da: bertako informazioa versus informazio- eta komunikazio-teknologia berriak; hezkuntza formala versus hezkuntza ez-formala eta hezkuntza informala). Kapitulu horretan lantzen da, halaber, hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntzaren kalitatea. Bertan jaso dira, gainera, bizitza osoan zehar ikasteak helburu profesionaletarako duen garrantzia eta bizitza osoan zehar ikastearen eta herritartasun demokratikoaren arteko lotura. Bertan aipatzen da, era berean, bizitza osoan zehar ikastea sustatzen dutela hainbat erakunde ofizialek, hala nola Europako Kontseiluak, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA)¹ eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO). Kapituluaren amaieran deskribatzen da Polonian hirugarren adinekoen unibertsitateak sortu izana, eta Polonia erabiltzen da bizitza osoan zehar ikastea sustatzearen adibide gisa.

3. kapituluak agertzen da adinekoei ikaskuntzara bideratutako ikerketaren ikuspegi labur bat, bai eta adinekoek atzerriko hizkuntzak ikasten hasteko izan ditzaketen arrazoiak ere. Era berean, atzerriko hizkuntzak ikasten dituzten adinekoei berezitasuna aztertu eta oztipo potentzialak deskribatzen ditu, hala nola adinaren estereotipoak, oroimen- eta hizkuntza-gabeziak, oreka eta koordinazioa, bai eta gaixotasun mentalak ere. Hain zuzen ere, ikasgelako praktika, jarduerak eta material hautatuak deskribatzen dira, adinekoekin erabil

¹ Editorearen oharra.

OECD ingelesez: *Organisation for Economic Co-operation and Development*. Bibliografiako aipuetarako jatorrizko sigla horiek baliatuko dira.

daitezkeenak. Horrez gain, oztopo afektiboak gainditzeko egin daitezkeen aldaketak aztertzen ditu, ikasteko materiala esanguratsua eta motibatzailea izan dadin, helduen ikaskuntza-estrategiak erabiltzeaz gain. Bertan azaltzen da nola hautatu eta egokitu behar diren adinekoen ikasgelako materialak. Gainera, adinekoekin lan egiten duten atzerriko hizkuntzako irakasleen ezaugarriak jorratzen ditu.

Adinekoen artean atzerriko hizkuntzak ikasteko eta irakasteko prozesuak hobeto ezagutzeko ikerketa bat deskribatzen da 4. kapituluak. Kapitulu honetan sartzen dira (a) ikerketaren helburuak, (b) parte-hartzaileen, tresnen eta prozeduren deskribapena, eta (c) emaitzak eta eztabaida. Azterlanak ikertzen du (a) adinekoak nola proiektatzen diren atzerriko hizkuntzen ikasle trebe gisa, eta (b) zein diren beren motibo eta itxaropen nagusiak atzerriko hizkuntzen ikastaro batean, eta hizkuntza bat ikastean izan ditzaketen erronkak. Era berean, azterlanaren helburua da (c) hizkuntza-irakasleen ezaugarri bereziak identifikatzea, eta hirugarren adinekoen unibertsitate (3AU, aurrerantzean) bateko hizkuntza-irakasleek har ditzaketen (edo hartu beharko lituzketen) rolak (edo rol berriak) identifikatzea. Espero dut azterlanak balio izatea irakasleak lanean hasi aurreko prestakuntza sakon aldatzeko eta etorkizuneko prestakuntza hori egokiagoa izateko.

5. kapituluak, berriz, 1. kapitulutik 4.era arteko puntu nagusiak laburbiltzen ditu, eta zer ikertu beharra dagoen adierazten du. Gainera, adinekoen atzerriko hizkuntzak irakastearen inplikazio pedagogiko batzuk aurkeztzen ditu.